IRAGARKIA

**HAPOko 38. sektorearen (Leioandi) plan partziala behin betiko onestea**

Udalaren Osoko Bilkurak 2008ko irailaren 18ko batzarrean hartu zuen 4. erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi da HAPOko 38. sektorearen (Leioandi) Plan Partziala.

Honakoa da erabakiaren eduki osoa:

*«Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 142. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:*

*Udalaren osoko bilkurak 2008ko apirilaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Leioandi eremuaren (HAPOko 38. sektorea) Plan Partziala behin betiko onetsi zen, oinarri duen plangintzaren aldaketa behin betiko onestearen baldintzapean.*

*Nahiz eta hirigintza-arloko legediak plangintza eta kudeaketako agiriak aldi berean idatzi eta ontzat emateko aukera ematen duen, baldintzekin, arau-hierarkiaren printzipioa, zentzu hertsian, aplikatu behar da horiek indarra hartzean. Dena den, plan partzial hau behin betiko onetsi zen, oinarri duen plangintza aldatzeko espedientea behin betiko onestearen baldintzapean, eta inguruabar hori dagoeneko gauzatu da aurreko erabakian. Hori dela eta, alderdi horren berri emango da, plan partziala betearaztearren.*

*Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:*

- *Leioandi eremuaren (HAPOko 38. sektorea) Plan Partziala behin betiko onestea, inolako baldintzarik gabe, oinarri duen plangintzaren aldaketa behin betiko onetsi baita.*
- *Dagokion iragarkia egunkarietan argitaratuko da (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. art.).*
- *Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio, Plangintzaren Euskal Erregistroan inskribatzearren.*
- *Behin betiko onespenaren erabakien eta hirigintzako arauen testu osoa argitaratuko da «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», Plangintzaren Euskal Erregistroan plan partziala sartu egin dela adierazita.*

*Irizpen hau hartu egin da, baina PP taldeko ordezkaria abstenitu da, hasieran eta behin-behinean onesteko faseetan gai hau eztabaidatzean haren taldeak azaldu zituen arrazoi berberak oinarri hartuta.*

***Bozketa eta osoko bilkuraren erabakia***

*Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarienak, PSE-EEko sei zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak; hiru abstentzio ere egon dira, PPko hiru zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du behin betiko onetsiko dela Leioandi eremuaren (HAPOko 38. sektorea) Plan Partziala, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak emandako irizpenean adierazten den bezala.»*

Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren Salan. Bi hilabeteko epea egongo da horretarako, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Nolanahi ere, egokitzat jotzen den beste edozein neurri ere hartu ahal izango da.

Epe horretan espedientea nahi duenaren esku egongo da Udalaren Bulego Teknikoan (Errekalde plaza, 1), bulego ordutegian.

Kopiak eskuratu ahal izateko, ale bat egongo da, formatu digitalizatuan, Cianoplan enpresan: Getxoko Villa de Plencia kaleko 6. zenbakian.

ANUNCIO

**Aprobación definitiva del Plan Parcial del Sector 38 del P.G.O.U.-Leioandi**

Mediante acuerdo plenario número 4 adoptado en la sesión celebrada el 18 de septiembre de 2008, se ha procedido a la aprobación definitiva del Plan Parcial del Sector 38 del P.G.O.U.-Leioandi.

El contenido íntegro del acuerdo es el siguiente:

*«Se sometió a la ratificación del Ayuntamiento Pleno, el dictamen número 142, adoptado en la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente, de fecha 2 de septiembre de 2008, cuyo tenor literal es como sigue:*

*Por acuerdo plenario núm. 8 adoptado el 28 de abril de 2008, se aprobó con carácter definitivo el Plan Parcial del ámbito de Leioandi (sector 38 del PGOU), condicionado a la aprobación definitiva de la Modificación de Planeamiento que le sirve de base.*

*Aunque la legislación reguladora del ámbito urbanístico posibilita la redacción y aprobación simultanea y condicionada de los diversos documentos de planeamiento y gestión, debe aplicarse a la hora de implantar su ejecutividad, con carácter estricto, el principio de jerarquía normativa. Como quiera que este plan parcial fue aprobado con carácter definitivo de forma condicionada a la aprobación definitiva del expediente de modificación de planeamiento que le sirve de base, circunstancia que ya se ha materializado en el acuerdo anterior , debe procederse a dar cuenta de este extremo, a efectos de la ejecutividad del plan parcial.*

*La Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente dictaminó la procedencia de que por el correspondiente acuerdo plenario se adopten las siguientes decisiones:*

- *Aprobar definitivamente el Plan Parcial del ámbito de Leioandi, (sector 38 del PGOU), sin condicionante alguno, al haberse aprobado con carácter definitivo la modificación de planeamiento que le sirve de base.*
- *Publicar el correspondiente anuncio en prensa diaria (artículo 89 Ley 2/2006 de 30 de junio).*
- *Remitir el expediente a la Diputación Foral de Bizkaia a efectos de su inscripción en el Registro Vasco de Planeamiento.*
- *Publicar en el «Boletín Oficial de Bizkaia» el contenido íntegro de los acuerdos de aprobación definitiva y de las normas urbanísticas, con indicación de haberse producido el depósito del Plan Parcial en el Registro Vasco de Planeamiento.*

*El presente dictamen fue adoptado con la abstención del representante del PP, en base a las argumentaciones utilizadas cuando se debatió este asunto en las fases de aprobación inicial y provisional.*

***Votación y acuerdo plenario***

*El Ayuntamiento Pleno, por mayoría de dieciocho votos a favor emitidos por los diez representantes de EAJ-PNV, los seis concejales del PSE-EE, y los dos de EB-Berdeak con tres abstenciones de los tres concejales del PP, acordó aprobar definitivamente el Plan Parcial del ámbito de Leioandi (Sector 38 del PGOU), al aprobarse con carácter definitivo la modificación de planeamiento que le sirve de base, en los mismos términos que el dictamen de la Comisión Informativa de Urbanismo, Transportes, Vivienda y Medio Ambiente.»*

Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses, a contar del día siguiente al de la publicación de este anuncio, ante la Sala de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sin perjuicio de cualquier otra medida que se estime procedente.

Durante el referido plazo el expediente quedará de manifiesto para su examen en las dependencias de la Oficina Técnica municipal, sitas en Plaza Errekalde número 1, en horario de oficina.

A efectos de disposición de copias, un ejemplar en formato digitalizado, se encuentra en las dependencias de la empresa Cianoplan, sitas en c/ Villa de Plencia número 6 de Getxo.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientearen ale bat Bizkaiko Foru Aldundiari bidalitakoan (plangintzaren inbentarioan sar dezan), gai honi eragiten dioten hirigintzako arauak argitaratuko dira:

## ZATIKAKO PLANAREN ARAUDIA

### 1. Hirigintzaren antolamenduaren egikaritza

Zatikako plan honetan garatutako hirigintza-antolamenduaren egikaritza indarrean dagoen hirigintza-legediarekin bat etorriz gauzatuko da (Lurzoruari eta hirigintzari buruzko EAEko legea edo ELHL); modu honetan:

1.1. *Kudeaketa modua*

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko EAEko legeak 134. artikuluan dioenarekin bat etorriz, administrazio publikoak (Leioako Udalak) gauzatuko du hirigintzaren antolamenduaren egikaritza-jarduera, lankidetzazko garapenaren bidez, ekimen pribatuarekin dagokion hirigintza-hitzarmena sinatuz, alde biko adostasunez.

1.2. *Jardute-eremua eta jarduera mota*

Leioandi izeneko sektorea lurzoru urbanizagarria da, Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren sektore-banaketaren arabera, eta plan horrek berak mugarritzen du. Lurzoru urbanizagarri horri jarduera mota integratua dagokio eta, beraz, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko EAEko legearen 138. eta 140. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, jardute-eremu publikoa dagokio. Jarduera publiko hori egikaritza pribatuaren bidez garatuko da, administrazio-emakidaren bitartez.

1.3. *Egikaritza-unitateak*

Sektorearen ezaugarriak kontuan izanda, sektore osorako egikaritza-unitate bakarra izatea proposatzen da.

1.4. *Jarduera-sistema*

Pribatua, administrazio-emakida bidez, sektoreko jabe gehiengodunen eskariz (lurzoruaren %73,94aren jabeena). Horretarako, dagokion hitzarmena sinatu behar da, aipatu jabeek ELHL legearen 160. artikuluan zehaztutako konpromisoak hartzen dituztela jasota geratuz, eta aipatu legearen zazpigarren xedapen gehigarrian eskatutakoa betez.

1.5. *Hirigintza-antolamenduaren egikaritza gauzatzeko baldintzak*

ELHL legearen 135. artikuluak ezarritakoa betez, hirigintza-egikaritzaren jarduera garatzeko, sektore osoari buruzko plangintza edo agiri hauek onartu behar dira aurrez:

a) Ordenazio xehakatua garatzeko hirigintza-planeamendua (zatikako plana).

b) Jarduera urbanizatzailearen programa.

c) Urbanizazio-proiektua.

d) Birzatitzeko Proiektua.

## ERAIKUNTZAKO ORDENANTZAK

I. KAPITULUA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.—*Aplikazio-eremua***

Zatikako planaren Eraikuntza Ordenantza hauek garatu eta osatu egiten dituzte indarrean dagoen Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Hirigintza Arauen zazpigarren izenburuko Eraikuntza Arau Orokorretan jasotako zenbait kontzeptu. Ordenantza hauetako zehaztapenak derrigorrez bete behar dira Zatikako Planaren

Conforme a lo establecido en el artículo 88 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, una vez remitido un ejemplar del expediente a la Diputación Foral de Bizkaia a efectos de su depósito en el Inventario de Planeamiento, se procede a la publicación de las normas urbanísticas que afectan a este asunto:

## NORMATIVA DEL PLAN PARCIAL

### 1. Ejecución de la ordenación urbanística

La ejecución de la ordenación urbanística desarrollada en el presente P.P., se llevará a cabo, de acuerdo con lo establecido en la legislación urbanística vigente (L.S.U.E), de la forma siguiente:

1.1. *Forma de gestión*

De acuerdo con lo establecido en el artículo 134 de la L.S.U.E, será la Administración Pública (Ayuntamiento de Leioa), lo que llevará a cabo la actividad de ejecución de la ordenación urbanística, en desarrollo Cooperativo, constituyendo, con la iniciativa privada, por mutuo acuerdo, el correspondiente Convenio Urbanístico.

1.2. *Esfera y tipo de actuación*

De acuerdo con lo establecido en los artículos 138 y 140 de la L.S.U.E, en el presente caso, al tratarse de un tipo de actuación integrada, del Suelo Urbanizable Sectorizado del P.G.O.U. de Leioa, que se corresponde con el Sector denominado como Leioandi, delimitado por el mismo, le corresponde una esfera de actuación pública, que se desarrollará en régimen de ejecución privado mediante concesión administrativa.

1.3. *División en unidades de ejecución*

Dadas las características del Sector, se propone una única Unidad de Ejecución, para la totalidad del mismo.

1.4. *Sistema de actuación*

De acuerdo con lo establecido en el artículo 159 del Título V, Capítulo II Sección Primera, de la L.S.U.E, se establece como Sistema de Actuación el de concertación, en régimen de Actuación Privada, mediante concesión administrativa, a instancias de los propietarios mayoritarios del Sector, que representan el 73,94% de la propiedad del suelo del mismo, para lo que deberá firmarse el correspondiente convenio, en el que conste la asunción, por parte de los citados propietarios, de los compromisos establecidos en el artículo 160 de la L.S.U.E., cumpliendo además lo requerido en la Disposición Adicional séptima de la citada L.S.U.E.

1.5. *Requisitos para llevar a cabo la ejecución de la ordenación urbanística*

De acuerdo con lo establecido en el artículo 135 de la L.S.U.E, el desarrollo de la actividad de ejecución urbanística, requerirá la aprobación, con carácter previo para la totalidad del Sector de:

a) El Planeamiento Urbanístico de Desarrollo de la Ordenación Pormenorizada (Plan Parcial).

b) El Programa de Actuación Urbanizadora.

c) El Proyecto de Urbanización.

d) El Proyecto de Reparcelación.

## ORDENANZAS DE EDIFICACIÓN

CAPÍTULO I

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.—*Ámbito de aplicación***

Las presentes Ordenanzas de Edificación del P.P, desarrollan y complementan algunos de los conceptos contenidos en las Normas Generales de la edificación del Título Séptimo, de las Normas Urbanísticas del vigente P.G.O.U de Leioa, y serán de obligado cumplimiento en todo el ámbito territorial abarcado por el Plan Parcial,

lurralde-eremu osoan, plana egikaritzeko moduan dagoen unetik aurrera; hau da, planaren behin betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

**2. artikulua.—*Kontrola***

Zatikako Planaren egikaritza-fasean, Leioako Udalari dagokio plana behar bezala aplikatzeko kontrolaren ardura.

**3. artikulua.—*Izaera***

Eraikuntza-ordenantza hauek indarrean den Leioako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Hirigintza Arauen zazpigarren izenburuan jasotako Eraikuntza Arau Orokorren osagarriak dira.

II. KAPITULUA

**ETXEBIZITZA-ERAIKINETAKO ERAIKUNTZA-BALDINTZAK**

**4. artikulua.—*Eraikuntzaren lerrokatzeak***

Babes Ofizialeko Etxebizitzen (BOE) loteari dagokionez, eraikinen beheko solairuak Zatikako Planean finkatutako lerrokatzeekin bat etorriz doituko dira. Goiko solairuetako lerrokatzeak, berriz, proiektuaren egilearen irizpideen arabera atzeraeman daitezke, eta azken solairua beti, atiko itxuran, 3 m gutxienez, beheko solairuarekin alderatuz.

Etxebizitza libreei dagokienez, eraikuntzaren gehienezko ingurakaria beheko solairuaren gehienezko lerrokatzeek zehazten dute. Beheko solairuaren gehienezko lerrokatzeak derrigorrezkoak dira eraikinaren perimetroaren zati batean:

— Kalera begirako fatxada nagusia: > %60.
— Gainerako fatxadak: > %20 < %40.

Kasu guztietan dago debekatuta hegadek beheko solairurako zehaztutako gehienezko lerrokatzeak gainditzea.

**5. artikulua.—*Bolumenen ordenazioa***

Lote bakoitzerako zehaztutako eraikigarritasuna gaitasunezko solidoaren gehienezko aprobetxamenduari legokiokeena baino txikiagoa da; hori dela-eta, lote bakoitzaren proiektuak honela zehaztuko ditu bolumenak:

— BOEtarako gordetako loteei dagokienez: beheko solairuaren derrigorrezko lerrokatzetik atikoaren —gutxieneko baina ez derrigorrezko— lerrokatzerako trantsizioa bolumenen mailakatutako ordenazioaren bidez egingo da, proiektuaren egileak egoki irizten dion moduan. BOE-EN loteei buruzko ordenantza grafikoan zenbait eskema ematen dira, orientazio gisa, eta eskema horiek horri buruzko hainbat konponbide agertzen dituzte.
— Etxebizitza libreetarako gordetako loteei dagokienez: proiektuaren egileak egoki irizten dion moduan antolatuko du bolumenen ordenazioa, fatxada bakoitzerako derrigorrezko lerrokatzeen gutxieneko ehunekoak betez. Dagokien ordenantza grafikoan zenbait eskema ematen dira, orientazio gisa, eta eskema horiek horri buruzko hainbat konponbide agertzen dituzte.

**6. artikulua.—*Fatxadak***

Lerrokatze kurbatudun fatxadek erradio bakarra izango dute, eta lerro poligonalak debekatuta daude. Buru-hormak erradialak izango dira eta, beraz, fatxada nagusiaren eta atzekoaren lerrokatzeekiko elkarzutak.

Lote bakoitzeko fatxaden tratamendu tektonikoa eta bolumetrikoa gainerakoen fatxadena ez bezalakoa izango da, bai BOEei bai etxebizitza libreei dagokienez.

Banaketa-elementu finkoen eta etxebizitzetako terraza ibilgarrien diseinua eraikinaren fatxaden diseinuaren zati izango da. Beraz, debekatuta dago erosleek bestelako banaketa-elementu osagarriren bat jartzea obra berria deklaratzerakoan.

a partir de la ejecutoriedad del mismo, una vez publicada su Aprobación Definitiva en el Boletín Oficial del Señorío de Bizkaia.

**Articulo 2.—*Control***

A partir de la ejecutoriedad del Plan Parcial, el control para la correcta aplicación del mismo, corresponderá al Ayuntamiento de Leioa.

**Artículo 3.—*Carácter***

Las presentes Ordenanzas de Edificación tienen carácter complementario, de las Normas Generales de la Edificación, contenidas en el Título Séptimo de las Normas Urbanísticas del vigente P.G.O.U. de Leioa.

CAPÍTULO II

**CONDICIONES DE LA EDIFICACIÓN EN LOS EDIFICIOS DE VIVIENDAS**

**Artículo 4.—*Alineaciones de la edificación***

En el caso de los lotes de Viviendas de Protección Oficial (V.P.O), los edificios se ajustarán, en su planta baja, a las alineaciones definidas en el Plan Parcial, pudiendo retranquearse, a criterio del autor del Proyecto, las de las plantas superiores, y siempre las de la última planta, en forma de ático, con un mínimo de 3 m, con relación a la de la planta baja.

En el caso de los lotes de Viviendas Libres, la envolvente máxima de la edificación está definida por las alineaciones máximas de la planta baja, que son obligatorias en una parte del contorno de la edificación, según los siguientes porcentajes:

— Fachada principal a calle: > 60%.
— Resto fachadas: > 20% < 40%.

En todos los casos se prohíben los vuelos que sobrepasen las alineaciones máximas definidas para la planta baja.

**Artículo 5.—*Ordenación de volúmenes***

Dado que la edificabilidad establecida para cada lote, es inferior a la que correspondería al aprovechamiento máximo del sólido capaz que lo define, el proyecto de cada lote resolverá:

— En el caso de los lotes destinados a Viviendas de VPO; mediante una ordenación de volúmenes escalonada, la transición entre la alineación obligatoria de la planta baja, y la del ático, que es mínimo pero no obligatorio, de la forma que estime pertinente el autor del proyecto. En la ordenanza gráfica de lotes de VPO, se incluyen una serie de esquemas a título orientativo y no limitativo, que reflejan distintas soluciones al respecto.
— En el caso de los lotes destinados a Viviendas Libres; el autor del proyecto resolverá, de la manera que estime más oportuna, la ordenación de volumenes, de forma que se cumplimenten los porcentajes mínimos de alineaciones obligadas en cada una de las fachadas. En la ordenanza gráfica correspondiente, se incluyen una serie de esquemas, artículo orientativo y no limitativo, que reflejan distintas soluciones al respecto.

**Artículo 6.—*Fachadas***

Las fachadas con alineación curva, tendrán un radio único, prohibiéndose las líneas poligonales. Los testeros serán radiales, y por tanto perpendiculares a las alineaciones de las fachadas principal y trasera.

El tratamiento, tectónico y volumétrico, de las fachadas de cada uno de los lotes, será diferente a los del resto, tanto en el caso de viviendas de VPO, como en el de las libres.

El diseño de los elementos de división fijos, de las terrazas visitables de las viviendas, formará parte del de las fachadas del edificio, prohibiéndose, en la Declaración de Obra Nueva, que los compradores instalen cualquier otro elemento de división suplementario.

**7. artikulua.—*Estalkiak***

Eraikinetako estalkiek lauak izan behar dute, derrigorrez, eta debekatuta dago haietan igogailuen makina-gelak jartzea, baldin eta igogailuaren zuloaren luzapenarekiko irten egiten bada edo makina-gelaren garaierak atikoaren estalkiaren karelaren edo petoaren gehienezko neurria gainditzen badu.

**8. artikulua.—*Aparkalekuen estandarra***

Lote bakoitzak honoko estandarrek adierazitako adina aparkaleku izan behar ditu bere baitan:

— Bizitegitarako erabilera

- Etxebizitza libre bakoitzeko bi aparkaleku.
- BOE bakoitzeko 1,5 aparkaleku.

— Ekipamendutarako erabilera

- 40m$^2$ bakoitzeko plaza bat, merkataritza-ekipamenduari dagokionez.
- 100m$^2$ bakoitzeko plaza bat, gainerako ekipamenduei dagokienez.

**9. artikulua.—*Aurreproiektua***

Birzatitzeko proiektuan atariak sustatzaile bati baino gehiagori esleitzen bazaizkio, lotearen aurreproiektua idatzi beharko da, lizentziak eman aurretik. Aurreproiektuan, tratamendu unitarioa eman behar zaie fatxadei, eta aparkalekuen eta haien sarbideen barruko ordenazioa, berriz, bat etorri behar da Birzatitzeko proiektuan horri buruz ezarritako balizko zortasunekin.

III. KAPITULUA

**LOTE ERAIKIGARRIAK ARAUTZEKO ORDENANTZAK**

Zatikako Planeko dokumentazio grafikoarekin bat etorriz.

IV. KAPITULUA

**ESPAZIO LIBREAK ARAUTZEKO ORDENANTZAK**

Zatikako Planeko dokumentazio grafikoarekin bat etorriz.

Leioan, 2008ko irailaren 30ean.—Alkatea, Eneko Arruebarrena Elizondo

(II-7155)

•

IRAGARKIA

**Leioako HAPOren zati baten aldaketa behin betiko onestea, 38. sektoreari (Leioandi) dagokionez: sektorizatzea, muga aldatzea Laubide sektorearekin, goikoetxeko hiri-lurzoruaren arloa bereiztea, espazioen eta komunikazioen sistema orokorra aldatzea eta ekipamendu-sistema orokor berria sortzea**

Osoko Bilkurak 2008ko irailaren 18ko batzarrean hartu zuen 3. erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi da Leioako HAPOren zati baten aldaketa, 38. sektoreari (Leioandi) dagokionez: sektorizatzea, muga aldatzea Laubide sektorearekin, Goikoetxeko hiri-lurzoruaren arloa bereiztea, espazioen eta komunikazioen sistema orokorra aldatzea eta ekipamendu-sistema orokor berria sortzea.

Honakoa da erabakiaren eduki osoa:

*«Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko irailaren 2ko 141. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:*

*Udalaren Zerbitzu Teknikoek honako honen berri eman dute: osoko bilkurak 2008ko apirilaren 28an hartutako 7. erabakiaren bidez behin-behinean onetsi zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokionez Plan Orokorreko 38. sektoreari (Leioandi) buruzko aldaketa, hasierako onespena jendaurrean agertzeko epean izandako alegazioen berri eman eta gero.*

**Artículo 7.—*Cubiertas***

Las cubiertas de los edificios serán obligatoriamente planas, prohibiéndose en la misma la instalación de salas de máquinas de ascensores, que sobresalgan de la prolongación vertical del hueco del mismo y cuya altura supere el nivel máximo del antepecho o peto de la cubierta del ático.

**Artículo 8.—*Estándar de aparcamientos***

Cada lote resolverá dentro del mismo, el número de plazas equivalente al estándar de:

— Uso Residencial

- 2 plazas por vivienda, en el caso de las viviendas libres.
- 1,5 plazas por vivienda, en el caso de las viviendas de VPO.

— Uso Equipamiento

- 1 plaza por cada 40 m$^2$ en el caso del equipamiento comercial.
- 1 plaza por cada 100 m$^2$ en el resto del equipamiento.

**Artículo 9.—*Anteproyecto***

En caso de que en el Proyecto de Reparcelación se adjudiquen portales a diferentes promotores, se redactará un Anteproyecto del lote, con carácter previo al otorgamiento de licencias, que deberá resolver un tratamiento de fachada unitario y una ordenación interior de los aparcamientos y sus accesos, que resulte acorde con las servidumbres que, en su caso, se hayan establecido, al respecto, en el Proyecto de Reparcelación.

CAPÍTULO III

**ORDENANZAS REGULADORAS DE LOS LOTES EDIFICABLES**

De acuerdo a la documentación gráfica del Plan Parcial.

CAPÍTULO IV

**ORDENANZAS REGULADORAS DE LOS ESPACIOS LIBRES**

De acuerdo a la documentación gráfica del Plan Parcial.

En Leioa, a 30 de septiembre de 2008.—El Alcalde, Eneko Arruebarrena Elizondo

(II-7155)

•

ANUNCIO

**Aprobación definitiva de la modificación puntual del P.G.O.U. de Leioa referente al ámbito del Sector 38-Leioandi: a su sectorización, cambio de límite con el sector de Laubide, segregación del área de suelo urbano de Goikoetxe, modificación del sistema general de espacios y de comunicaciones y creación de un nuevo sistema general de equipamiento**

Mediante acuerdo plenario número 3 adoptado en la sesión celebrada el 18 de septiembre de 2008, se ha procedido a la aprobación definitiva de la Modificación Puntual del P.G.O.U. de Leioa referente a la aprobación definitiva de la Modificación Puntual del P.G.O.U. de Leioa referente al ámbito del Sector 38-Leioandi: a su sectorización, cambio de límite con el Sector de Laubide, segregación del área de suelo urbano de Goikoetxe, modificación del Sistema General de Espacios y Comunicaciones y creación de un Sistema General de Equipamiento.

El contenido íntegro del acuerdo es el siguiente:

*«Se sometió a la ratificación del Ayuntamiento Pleno, el dictamen n.º 141, adoptado en la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente, de fecha 2 de septiembre de 2008, cuyo tenor literal es como sigue:*

*Por medio de los Servicios Técnicos municipales se da cuenta de que mediante acuerdo plenario núm. 7 adoptado el 28 de abril de 2008, se aprobó con carácter provisional la Modificación del Plan General de Ordenación Urbana del sector 38 de Leioandi del Plan General, una vez informadas las alegaciones presentadas en el periodo de exposición al público del documento de aprobación inicial.*